LAN MERKATUAREN BALANTZEA 2022

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

2022

lanbide
EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
SERVICIO VASCO DE EMPLEO

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
LAN ETA ENPLEGU SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO

Aurkibidea

- TESTUINGURU EKONOMIKOA 4
- LANBIDEN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA 5
- GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA 7
- KONTRATATUTAKO PERTSONAK ETA KONTRATUAK 8
- ENPLEGUA EUSTATEN ETA BJAREN ARABERA 10
- LANGABEZIA EUSTATEN BJAREN ARABERA 12
- ERANSKINA- TAULAK 14

*Txosten honetan **EAEko lan-merkatuak 2022**. urtean izan dituen gertaera nagusiak aztertzen dira, haren aldagai garrantzitsuenen portaera kontuan hartuta.*

Lan-merkatuari lotuago dauden administrazio-iturriak hartu dira kontuan (Gizarte Segurantzako afiliazioa, erregistratutako langabezia eta kontratuen erregistroa), baita biztanleen lan-jarduera neurtzen duten eragiketa estatistiko nagusiak ere (Eustaten- Biztanleria Jardueraren Arabera – BJA - eta Eurostat-en Labour Force Survey-ko datu batzuk)

Testuinguru Ekonomikoa

2022an Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinak (BPG) urtez urteko tasaren aurreikuspena +% 4,4koa da eta 2023 an +% 2,1ko

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren EAEko ekonomiaren 2022ko urteko txostenaren arabera, Euskadiren urteko batez besteko hazkundea %4,4koa izan zen 2022an; 2023rako, berriz, %2,1ekoa izatea aurreikusten da.

Ukrainako gerrak, energia-merkatuetako tentsioek, inflazio handiak eta, azkenik, garatutako arlo ekonomiko nagusietako moneta-politikaren zeinu-aldaketak Euskadiren hazkundea moteldu dute urtean zehar.

Edonola ere, Eustatek aurreratutako datuen arabera, ekonomiaren sektore guztiak hazi ziren, nahiz eta 2021ean baino erritmo motelagoan, kontuan hartuta urte horretan BPGa %5,9 handitu zela.



Iturria: Eustat

Espainiako eta Euroguneko ekonomiei dagokienez, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala, *Consensus Forecast* 2022. urterako aurreikuspena +%3,5ekoa da Eurogunerako eta +%5,5ekoa Espainiarako. 2023rako aurreikuspenak +%0,9 eta +%1,4 dira, hurrenez hurren.

Eurogunea osatzen duten herrialdeen hazkundeak oso desberdinak izan ziren. 2022an; honela, muturretako datuak Irlandaren %12,0k (multinazionalen kontabilitate jarduerak mesede egin zion) eta Estoniaren %1,3k markatu zuten. Dena den, urtearen azken txanpan tonua nabarmen galdu izana izan zen azpimagarriena.



Iturriak: "Koiuntura DI-DA batean 2023ko martxoa" txostena. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila.

Munduko ekonomiaren hazkundea 2022an (%3,4) aurreko urtekoa (%6,3) baino nabarmen txikiagoa izan zen, gorago zehaztutako txostenean argitaratutako datuen arabera. Zehazki, herrialde garatuek, ELGAn sartuta daudenak, %4,6ko urtez arteko aldakuntza-tasarekin hasi ziren urtea eta hazkunde-erritmoa %1,4ra jaitsi zen laugarren hiruhilekoan. Intentsitatearen galera hori azaltzen duten arrazoi nagusien artean, honako hauek aurki ditzakegu: produkzio-kateen haustura, lehengaien eta energiaren garestitzea, horrek guztiak eragin zuen inflazio handia eta moneta-politikaren igoera, interes-tasen igoera larriei dagokienez.

Lanbiden erregistratutako langabezia

2022. urtean erregistratutako langabeen kopurua %7,8 murriztu da EAEn; Industria sektorearen bilakaera nabarmentzen da (-%14,0)

Aurreko urtean gertatu bezala, 2022an behera egin du EAEn erregistratutako langabeen kopuruak. Urteko batez bestekoa kontuan hartuta, 9.539 langabe gutxiago erregistratu dira aurreko urtearekin alderatuta; 2021ean12.406, 2020an 19.760 gehiago erregistratu ziren, 8.059 langile gutxiago zenbatu ziren 2019an, 9.899 gutxiago 2018an; 12.587 gutxiago 2017an; 14.152 gutxiago 2016an; eta, azkenik, 11.553 gutxiago 2015ean. Autonomia Erkidegoan artean, ehuneko bilakaera onena Balear Uharteetan (-%38,6) eta Madrilgo Erkidegoen (-%23,5) izan da; okerrena, berriz, Melillan (-%1,3) eta Euskadin (-%7,8).

2022ko abendutik 2021eko abendura bitarteko aldakuntzari erreparatuta, EAEn 4.047 langabe gutxiago erregistratu ziren (-%3,5). Gainerako Erkidego Autonomoei dagokienez, bilakaera onena, balio erlatiboetan, Balear Uharteetan izan da (-%36,0), eta okerrena Melillan (+%9,2), saldo positiboa izan duen bakarra

3. Grafikoa. **Erregistratuko langabeziaren urte arteko aldakuntza, Autonomia Erkidegoen arabera**
(2022ko abendua-2021ko abendua)



Iturria: Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa

Sexuaren arabera, langabeziak bilakaera hobea izan du gizonen artean emakumeen artean baino, bai urteko batez bestekoari erreparatuz gero (-%10,0 eta -%6,0), bai urteko azken hilabetean (-%6,6 eta -%1,0, hurrenez hurren)

Sektorearen arabera, balore erlatiboetan, bilakaera onena Industria sektorean izan da (-%14,0); Eraikuntza sektorek jarraitu dio (-%12,6). Lehen enplegua oraindik izan ez dutenen artean langabezia %9,7 murriztu da.Urte amaierako alderaketan ikusten da beherakadarik handiena Lehen Sektorean gertatu zela (-%17,2), eta ondoren Eraikuntzan (-%16,7).

Jardueraren arabera, ondorengoak dira bilakaera onena izan duten jarduerak: (i) *Eraikuntza espezializatuko jarduerak* (-689), (ii) *Txikizkako merkataritza* (-616); (iii) *Eraikinak erainkuntza* (-541); (iv) *Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk* (-359); eta, azkenik, (v) *Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza* (-359). Bestetik, bilakaera okerrena izan duten jarduerak hauek izan dira: (i) *Enpleguarekin uztartutako jarduerak* (+859); (ii) *Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza* (+806); (iii) *Eraikinetarako eta lorezaintzako jardueretarako zerbitzuak* (+741) eta (iv) *Egoitza-eraikuntzetarako laguntza* (+454).

Adinaren arabera, 4. grafikoan ikus daitekeen bezala, langabeziaren bilakaerarik onena 35-44 urte bitarteko biztanleek izan dute (-%12,8); ondoren, 25-34 urte bitartekoek (-%12,2); jarraian, 16-24 urtekoek (-%11,6); eta, azkenik, 45-54 urtekoek (-%8,0). Beste muturrean, berriz, 55 urtetik gorako pertsonen kolektiboak izan du bilakaerarik txarrena (+%0,9).

4. Grafikoa. **EAEn erregistratuko langabeziaren urte arteko bilakaera, adinaren arabera**
(2022ko abendua vs 2021ko abendua)



Iturria: Lanbide

Lurralde historikoen arabera, 2021ko datuekin alderatuta, Bizkaiak eta Gipuzkoak izan dute eboluzio onena 2022an (-%8,2 eta -%7,9 hurrenez hurren); Araban murrizketa %6,1koa izan da.

Eskualde guztietan murriztu da langabe kopurua, ondorengoak nabarmentzen dira: (i) Ezker Eskualdea (-882); (ii) Bilbo (-525); eta (iii) Vitoria-Gasteiz (-487). Hala ere, kopuru erlatiboetan, Arabako Errioxa da murrizketa handiena izan duen lurraldea (-%14,1).

Jasotako prestazioaren arabera, erregistratutako langabeen %33,4k langabezia-prestazioa kobratzen du (2021an baino 0,4 puntu gehiago). Prestazioa kobratzen duten langabeen artean % 55,2ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen du (aurreko urtean baino portzentajezko 0,7 puntu gehiago); eta gainerako % 44,8ak subsidioa edo GEA jasotzen du.

Langabeziaren iraupenaren arabera, iraupen laburreko langabetuen kopurua (-% 2,2) nahiz iraupen luzeko langabetuena (-% 12,8) murriztu da. 2022ko. abenduan, iraupen luzeko langabeen kopurua 54.390 izan da; iraupen laburreko langabeen kopurua, berriz, 56.408 izan da.

Nazionalitatearen arabera, Langabeen % 16,3k atzerriko nazionalitatea du (2021ko datua baino 1,4 puntu altuagoa). Azken urtean zehar, bertako langabeen kopuruak % 8,2 egin du behera eta atzerriko langabeen kopuruak, berriz,% 5,5. EAEko biztanle langabetuen artean, atzerritarren kolektiboak pisu handia du, kontuan hartuta biztanleria osoaren % 8,5 izan dela 2022an (2020an baino ehuneko 0,2 puntu altuago), Eustatek argitaratutako biztanleen udal-estatistikaren arabera. Nagusiki bi arrazoi nagusi daude azaltzeko LANBIDEn izena emanda dauden atzerritarren presentzia handia: (i) bata, beharrezkoa da enplegu-eskatzaile gisa izena emanda egotea DSBE bezalako laguntzak eskuratzeko, EAEn ezarpen handia duena; eta bestea (ii) atzerritartasuna izateak askotan zailtasuna dakar lan-merkatuan sartzeko. Atzerriko langabeen artean, Latinoamerikako (-394) eta Afrika iparraldeko (-354) nazionalitatea dutenlangabeen kopuruaren beherakadak nabarmentzen dira.

Ikasketa mailaren arabera, 2022ko urteko batez bestekoa kontuan hartuta, langabetuen % 60,2k oinarrizko ikasketak zituen; % 18,6k Lanbide heziketako ikasketak; % 12,3ek unibertsitateko ikasketak eta gainerako % 8,9k batxilergoko ikasketak. 2021eko datuekin alderatuta, langabeen beherakada handiena, balore absolutuetan, oinarrizko ikasketetan izan da (-5.534), eta ondoren, Lanbide Heziketako ikasketetan (-1.665).

Gizarte Segurantzako afiliazioa

2022an, Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopuruak % 1,4an egin du gora, aurreko urtearekin alderatuz; 994.077 pertsonarekin itxi da urteko datua.

2022 urte amaieran afiliatutako pertsona kopurua 994.077an kokatu da, aurreko urtean baino 14.055pertsona gehiago (+%1,4) eta 2013. urtean baino 118.916 pertsona gehiago (+%13,6). 2022 amaieran, afiliatu kopurua 2008ko uztailean lortutako maximo historikotik (982.935) 11.142 pertsona gehiago dago, krisi aurreko garaian lortutako datua.

5. Grafikoa. **Afiliazioa Gizarte Segurantzan EAEn**
(Pertsona kopurua; abenduko batez bestekoa)



Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

Sexuaren arabera, gizonezko afiliatuak 515.278 izan dira (2021an baino 6.956 gehiago); eta emakumezko afiliatuak, berriz, 478.797 (aurreko urtean baino 7.098 gehiago). Emakumeak afiliatuen %48,1 dira, aurreko urtean baino hamarren bat gutxiago. Krisiaren hasieran, emakumeak afiliatu guztien %42 baino ez ziren. 2008 krisian zehar eta azken osasun krisian zehar, jarduera oso maskulinoek okerrera egin dutenez, eta lan-merkatuan emakume gehiago daudenez, gora egin du afiliatutako emakumeen proportzioak.

Jardueraren arabera, azken urtean, ia jarduera gehienetan hazi da afiliatutako pertsona kopurua: (I) *Manufaktura industria* (+2.088); (ii) *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* (+1.899); (iii) *Ostalaritza* (+1.781); (iv) *Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak* (+1.585); eta (v) *Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza* (+1.474). Lau jardueratan soilik murriztu da afiliatu kopurua: (i) *Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa* (-932); (ii) *FInantza jarduerak eta aseguruetakoak* (-127); (iii) *Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza* (-366) eta *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura* (-64).

Lurralde historikoaren arabera, 2022ko abenduan, Bizkaiak afiliatu guztien % 50,3 izan du; Gipuzkoak % 33,3; eta Arabak % 16,4. Aurreko urtearekin alderatuz, balore erlatiboetan, Arabak eta Bizkaiak izan dute hazkunde handiena (+% 1,7); ondoren, Gipuzkoak (+% 0,9). Afiliazio hazkunde handiena izan duten jarduerak hauek izan dira lurraldez lurralde: Araban (i) *Manufaktura industria* (+678); (ii) *Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza* (+400); eta, azkenik, (iii) *Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak* (+394); Gipuzkoan: (i) *Ostalaritza* (+1.034); (ii) *Manufaktura industria* (+798); eta, azkenik, (iii) *Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak* (+608); eta bukatzeko, Bizkaian: (i) *Hezkuntza* (+1.259); (ii) *Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak* (+1.226); eta (iii) *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak* (+1.119).

Nazionalitatearen arabera, 2022ko abenduko batez besteko datuen arabera, atzerritarren multzoak afiliazioaren % 8,4 izan da. Aurreko urteko datuen aldean, afiliatu atzerritarren kopurua %11,4 hazi da eta bertakoena, aldiz, +%0,6. Atzerritar afiliatuen artean, pixka bat gehiago hazi da emakumezkoen kopurua (+%11,6) gizonezkoena baino (+%11,3). Lurralde historikoaren arabera, atzerritarren hazkunde handiena Bizkaiak izan du (+%11,9); ondoren, Gipuzkoak (+%11,1) eta Arabak (+% 10,7). Bukatzeko, Europar Batasunetik kanpo etorritako atzerritarren afiliazioa % 14,6 hazi da eta Europar Batasunetik etorritakoena, aldiz, % 2,9

Kontratatutako pertsonak eta kontratuak

2022an, 304.106 pertsonak 815.719 kontratu sinatu dituzte, iaz baino 19.500 pertsona gehiago eta -%5,3 kontratu gutxiago

Kontratatutako pertsonak.
2022an zehar, 304.106 pertsonak sinatu dute EAEko lanpostu baterako kontraturen bat; alegia, 2021an baino % 6,9 gehiago. Hazkundea handiagoa izan da emakumezkoen artean (+%7,3) gizonezkoen artean baino (+%6,4). 2022an emakumeak kontratatutako pertsonen % 47,9 izan dira (aurreko urtean baino ehuneko 0,2 puntu gehiago).

Adinaren arabera, kontratatutako pertsona gehien biltzen dituen adin tartea 25-34 urte artekoa izan da (kontratatutako pertsona guztien % 27,0); jarrian, 24 urte azpikoena (% 22,5), 24 urte azpikoena (% 20,8), 35-44 urte arteko tartea (%22,2), 45-54 urte arteko tartea (% 19,0) eta, azkenik, 55 urte gorakoen tartea dago (% 9,2). Balore erlatiboetan, hazkunde handiena erregistratu den 24 urte azpikoen adin tartea izan da (+% 14,5); alderantziz, 35-44 adin tartea izan da gutxien hazi dena (+% 2,4).

Nazionalitatearen arabera, Kontratatutako pertsonen %19,1 atzerritarrak izan dira, %20,5 gizonezkoen artean eta %17,6 emakumezkoen artean. Atzerritarren artean, gehien nabarmentzen den taldea latinoamerikarrena da (%46,6); ondoren, Europa erkidegotik nahiz erkidegoz kanpotik etorritakoak (%18,9); eta, azkenik, Afrika iparraldetik etorritakoak (% 15,6).

Errotazio-tasa, 2022ko errotazio-tasa 2,7koa izan da, aurreko urtekoa baino 0,3 puntu altuagoa. Portzentajea 2,6koa da gizonezkoen kasuan eta 2,8ekoa emakumezkoen kasuan.

Sinatutako kontratuak.
2022an zehar, 815.719 kontratu sinatu dira EAEn, aurreko urtean baino %5,3 gutxiago. Sexuaren araberako banaketa oso orekatua da: kontratuen % 50,8 gizonezkoek sinatu dituzte eta gainontzeko % 49,2 emakumezkoek. Atzerritarrek sinatutako kontratuak kontratu guztien % 14,9 izan dira (aurreko urtekoaren berdina).

Lurralde historikoaren arabera, kontratuen % 49,2 Bizkaian sinatu dira; Gipuzkoan % 30,7; eta Araban % 20,1. Aurreko urtearen aldean, balore erlatiboetan, Bizkaian izan da jaitsiera handiena (-%7,4), ondoren,Araban (-% 3,5) eta, azkenik, Gipuzkoan (-%3,0).

Jardueraren arabera, kontratu kopururik nagusiena ondorengo jardueretan izan da: *Manufaktura-industria* (%14,0), ondoren *Ostalaritza* (%13,4), *Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak* (%12,5), *Merkataritza* (% 11,9) eta *Sdministrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* (% 10,6).

Okupazio taldearen arabera, nabarmentzen dira, batetik, Zerbitzuen sektoreko profil kualifikatuetarako kontratuak (%29,3) eta Kualifikaziorik gabeko lanbide profiletarako kontratuak (%28,7). Gainerako kontratuak lanpostu hauek betetzeko sinatu dira: Teknikari eta profesional zientifikoak (%12,4), Laguntzako teknikariak eta profesionalak (%9,9), Operadoreak (%6,9), Industria sektoreko profil kualifikatuak (%6,4), Administrazioko langileak (%5,8), Lehen sektoreko profil kualifikatuak (%0,4) eta azkenik, Zuzendaritza-postuak (%0,2).

Kontratu motaren arabera, kontratu mugagabeen pisua %24,5koa izan da (aurreko urtean baino ehuneko 15,2 puntu altuagoa). Aldi baterako kontratuen pisua, beraz, %75,5koa izan da. Kontratu mugagabeen kopurua nabarmen handitu da abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretua indarrean jarri zenetik (*32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Lan-errefor*

marako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatu baxua eraldatzeko premiazko neurriei bu ruzkoa). Zenbaki absolututan, 2022an EAEn kontratu mugagabeak 199.995 izan dira, eta aldi baterako kontratuak, berriz, 615.724. Kontratu mugagabeei dagokienez, %51,3 gizonenak izan dira, eta %48,7 emakumeenak. Sexuaren araberako banaketa ere oso parekatua izan da aldi baterako kontratuen artean (aldi baterako kontratuen %49,3 gizonek sinatu dituzte eta gainontzeko %50,7a emakumeek). Sinatutako kontratu guztiak kontuan hartzen baditugu, %36,6 lanaldi partzialekoak izan dira (gizonek sinatutako kontratu guztien %25,1a eta emakumeek sinatutako kontratu guztien %48,0a). 6. Grafikoan ikus daitekeen bezala, azken urtean aldatu egin da kontratazio-modalitate horren pisua (aurreko urtean erregistratutako tasa baino 2,8 puntu baxuagoa da aurten). 2011. urtea erreferentziatzat hartzen badugu, lanaldi partzialeko kontratuen pisua ehuneko 1,5 puntu igo da (%35,1etik 2011 urtean %36,6ra pasatu da 2022an).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Hurrengo lerroetan, EAEko **kontratu mugagabeak** sakon aztertuko ditugu.

Adinaren arabera, kontratu mugagabeen pisu handiena duen taldea 25-34 adin tartea izan da (adin tarte horretako kontratu guztien artean, kontratu mugagabeak %25,6 izan dira), jarraian 35-44 adin tartea (%25,3) eta 45-54 adin tartean (%24,3). Azkenik, 24 urtetik azpikoen taldeak izan du kontratu mugagabeen pisurik baxuena (% 6,1). Gorakada hori gorabehera, 24 urtetik azpikoen taldea dira, oraindik ere, beren adin-taldearen barruan kontratu mugagabe gutxien sinatu dituztenak (%23,1).



Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Okupazio taldearen arabera, kontratu mugagabeen pisurik handiena Zuzendarien taldeak izan du (okupazio talde honen kontratu guztien artean kontratu mugagabeak %75,8 izan dira). Pisu txikienak, aldiz, Zientzia eta adimen arloetako teknikariak eta profesionalak izan dira (%19,4). Bi mutur horien artean ondorengo perfilak ditugu: (i) Manufakturako, eraikuntzako eta meatzaritzako artisauak eta langile kualifikatuak (%36,0), (ii) Administrariak (%33,0), (iii) Teknikariak; laguntza emateko profesionalak (%28,1), (iv) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza sektoreetako langile kalifikatuak (%27,3); (v) Zerbitzuetako kalifikatu langileak (%23,5); (vi), Kualifikatu gabeko langileak (%22,4) eta, azkenik, (vii) Operadoreak (%22,1).

Jardueraren arabera, alde batean uzten baditugu 2022an zehar 300 kontratu baino gutxiago izan dituzten jarduerak, kontratu mugagabeen pisurik handiena *Etxeetako jarduerak* izan da (%45,6), jarrian, *Eraikuntza* (%56,2) eta *Jarduerak higiezinekin*. Pisu txikiena, aldiz, jarduera hauek izan dute: *Administrazio Publiko* (%1,7) eta *Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerek* (%10,4).

Nazionalitatearen arabera, kontratu mugagabeek pisu handiagoa dute atzerritarren artean (%35,9), bertakoen artean baino (%22,3). Hala ere, behin betiko kontratu guztien %24,4k atzerritar bat du onuradun (aurreko urtean baino 4,6 ehuneko-puntu gehiago).

Enplegua Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)[1] inkestaren arabera

Iazko datuen aldean, 2022an zehar, enplegua % 1,6 hazi da, landunak 962.000 dira eta enplegu-tasa % 51,6koa

2022ko laugarren hiruhilekoan, 962.900 landun zeuden (aurreko urteko hiruhilekoan baino %1,6 gehiago). 2022 urte amaieran 2020an baino 31.500 landun gehiago daude (+% 3,4).



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Adin tartearen arabera, 2021ko datuekin alderatuta, talde guztiak igo dira: +2.400 landun 24 urte azpikoen tartean (+% 5,5), +5.700 landun 25-44 adin tartean (+% 1,6) eta +7.000 landun 45 urte gorakoen kolektiboan (+% 1,4). 2008. urtearekin alderatuta (krisiaren hasiera), ikusten da enplegua murriztu egin dela adin piramidearen beheko aldean (181.600 landun gutxiago 45 urte azpikoen artean), aldiz, piramidearen goiko aldean hazi egin da (156.600 landun gehiago 45 urte gorakoen artean). Adin araberako bereizketa horrek lotura zuzena du 2008-2021 urte arteko populazioaren bilakaerarekin: 45 urte azpiko 167.000 pertsona gutxiago daude eta 191.000 pertsona gehiago 45 urte baino gehiagokoen artean.

Sexuaren arabera, enplegua gutxiago hazi da emakumezkoen artean (+6.900), gizonezkoen artean baino (+8.300). Hala eta guztiz ere, 9. grafikoan ikus daitekeen bezala, 2021tik aurrera bi sexuek gora egin duten arren, 2022an gizonen artean izandako igoera 2021ean izandakoa baino txikiagoa da. Urte honetan izandako landunen artean %47,8 emakumezkoak izan dira (iazko ehuneko bera). Enplegu tasari dagokionez, gizonezkoena %56,1ekoa da eta emakumezkoena %47,4koa (8,7 puntu baxuagoa gizonezkoena baino). Azken urtean gizonezkoen enplegu tasa 0,7 hazi da eta emakumezkoena 0,6 puntu.



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Lurralde historikoaren arabera, Gipuzkoak lortu du enplegu-tasarik onena (% 52,8), ondoren, Arabak (%51,6 eta Bizkaiak (% 50,7). Ildo horretan, Bizkaiko enplegu tasa EAEko batez bestekoaren (% 51,6) azpitik geratu da. Gainerako lurraldeetan, berriz, enplegu-tasa EAEko batez bestekoa baino handiagoa edo parekoa da. Landunen kopuruak termino erlatibotan izan duen bilakaerari dagokionez, Bizkaiak izan du hazkunde handiena (+% 2,3), ondoren Gipuzkoak (+% 2,2); Araba, aldiz, jaitsi egin da (-% 2,0).

Jardueraren arabera, 2022. urtearen amaieran, zerbitzu sektoreak bildu du landun guztien % 72,9; industriak % 20,0; eraikuntzak % 6,1; eta lehen sektoreak % 1,0. Aurreko urteko datuekin alderatuta, zerbitzu sektorean izandako landunen gorakada nabarmentzen da (+ 15.700), ondoren, eraikuntza sektorean ere hazi egin da landun kopurua (+3.600) eta lehen sektorean (+1.400). Industrian, aldiz, (-5.600) murriztu egin da landun kopurua.

[1] 2022ko BJAtik ateratako datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarrilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin.

Enplegu-tasa, 2022an, enplegu-tasa % 51,6koa izan da (iaz baino 0,7 puntu altuagoa eta 2019ko maila prepandemikoa 0,4 puntu gaindituta). Estatuko tasa %51,0koa izan da, Estatistika Institutu Nazionalaren (hemendik aurrera EIN) Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera (hemendik aurrera BAI). Erkidegoen arteko konparaketa egiteko erabilitako iturria, EAEk izan du estatuko 8. tasa altuena; Madrilgo Erkidegoan erregistratu da altuena (%55,9) eta Asturiasen baxuena (%43,2).

EAEko **aldi baterako soldatapekoen tasa** % 19,6koa izan da, EINren BAIren arabera (Eustaten datu faltagatik erabilitako iturria), 2021ko azken hiruhilekokoa baino 5,7 puntu baxuagoa. Estatuan, tasa baxuena izan duten Autonomia Erkidegoak Madril (%13,9), Ceuta (%14,3) eta Katalunia (%14,5) izan dira; altuena izan dutenak, ordea, Melilla (% 30,0), Extremadura (%26,8) eta Andaluzia (% 23,4) izan dira.

Kontratu motaren arabera, 2022ko azken hiruhilekoan EAEko lanaldi partzialeko enplegu tasa % 15,3koa izan da, EINren BAIren arabera (aurreko urtekoa baino 1,4 puntu altuagoa). Gizonezkoen lanaldi partzialen tasa ehuneko 1,2 puntu hazi da; emakumezkoen artean, ordea, ehuneko 0,1 puntu jaitsi da. Joera mantendu egiten da, izan ere, emakumezkoen artean handiago da lanaldi partzialean dagoen landun kopurua (%24,4) gizonezkoen artean baino (%7,9).

Borondatezkoa ez den lanaldi partzialaren tasa (prekarietate adierazlea) EINren BAIren arabera, EAEn 2021an %48,3koa izan da (estatukoa baino 1,3 puntu baxuago eta aurreko urtekoa baino 0,6 puntu baxuagoa).

Langabezia Eustaten Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) inkestaren arabera

2022. urtearen bukaeran langabezia-tasa % 8,5koa izan da (1,4 puntu apalagoa 2021koa baino), eta 89.800 langabe daude

2022 amaieran, 89.800 langabe zenbatu ziren EAEn. Aurreko urtearekiko murrizketa 14.400 pertsonakoa izan da, %13,8eko beherapena kopuru erlatiboetan.

10. grafikoan ikus daitekeen moduan, EAEko langabezia tasaren eboluzioa positiboa gelditu egin zen COVID-19aren ondorioz, baina azken urte honetan berriz aktibatu eta mantendu da joera hori. 2022 bukaeran erregistratutako tasa %8,5koa izan da (1,4 puntu baxuagoa izan da aurreko urtekoa baino), krisiaren ondorioz 2013an izandako gehieneko gailurra baino 7,7 puntu txikiagoa izanda. Estatu mailan, EIN-ren BAIren arabera, 2022ko azken hiruhilekoan %12,9koa izan da langabezia.

10. Grafikoa. **EAEn langabezia tasaren urte arteko bilakaera, sexuaren arabera**
(%; 4. hiruhilekoa)



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Sexuaren arabera, emakumeen artean 5.400 pertsona gutxiago daude langabezian (-%10,3) eta gizonen artean, berriz, 8.900 gutxiago (-% 17,1). 2022ko azken hiruhilekoan, langabeen %52,1 emakumeak dira (duela urtebete kopuru hori % 50,1ekoa zen). 2020an ez bezala, pandemiaren urtean, gizonen langabezia-tasa emakumeena baino txikiagoa da (% 7,9 vs % 9,2). Gainera, aipatu behar da azken urtean langabezia-tasaren bilakaera hobea izan dela gizonentzat (1,6 ehuneko-puntu jaitsi da) emakumeentzat baino (ehuneko -1,1 puntu).

Adinaren arabera, aurreko urtearekin alderatuta, termino absolutuetan zein erlatiboetan, 25-44 urteko kolektiboa izan da beherakada handiena izan duena (-9.600 langabe, -%19,0); ondoren, 45 urte gorakoen kolektiboa (-4.400 langabe, -%10,5) eta 25 urte beherakoen adin tartea (-400 langabe, -%3,5). Hala eta guztiz ere, ia langabeen erdiak baino gehiagok, %45,7k, 25-44 urte dituzte.

Lurralde Historikoaren arabera, 2022ko laugarren hiruhilekoko erregistroetatik abiatuta, langabezi-tasari dagokionez, Gipuzkoak du egoerarik onena (%6,9), ondoren, Arabak eta Bizkaiak (biek %9,3). Aurreko urtearen aldean, bilakaera onena Araban izan da (2 puntu murriztu da tasa). Gipuzkoan eta Bizkaian askoz gutxiago murriztu da (-0,9 eta -0,4 hurrenez hurren). Egoerak onera jarraitzen du, eta, beraz, langabezia maila krisi aurreko datuetatik gertuago dago.

Nazionalitatearen arabera, atzerritarren langabezia-tasa bertakoena baino altuagoa izan da (%21,9 vs %7,0). EINren BAIren arabera, EAEn Espainako nazionalitatea duten pertsonek %7,1 langabezia-tasa dute. Atzerritarren artean, Europar Erkidegotik kanpoko nazionalitatea duten atzerritarrek erregistratu dute langabezia-tasa altuena, %28,3 eta Europar Erkidegoko nazionalitatea dutenek %22,2koa.

Langabeziaren iraupenaren arabera, EINren BAIren arabera, 2022ko azken hiruhilekoan, langabeen %27,7k bi urte edo gehiago zeramatzaten egoera horretan, eta %15,2k urtebete eta bi urte bitartean. Beraz, langabeen %42,9 iraupen luzekoak dira (aurreko urtean baino ehuneko 3,7 puntu gutxiago).

Ikasketa mailaren arabera, langabeen %27,8k oinarrizko ikasketak ditu, derrigorrezko ikasketak gehienez (ikasketarik gabeko langabeak barne). Langabeen %25,4k goi mailako ikasketak ditu. Gainontzeko % 46,8k batxilergoko edo erdi mailako Lanbide Heziketako ikasketak ditu.

11. grafikoan ikus daitekeen bezala, langabezia-tasa handiena lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean eman da (ikasketarik gabeko pertsonak barne); lortutako tasa % 11,7 izan da. Erdi-mailako lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasketak dituzten pertsonen

artean %10,5a. Beraz, talde bietan langabezia-tasa batezbestekoa baino altuagoa izan da. Goi mailako ikasketak dituzten pertsonek (goi-mailako lanbide-heziketako ikasketak edo unibertsitate-ikasketak) langabezia-tasa txikiena dute (%5,2).

11. Grafikoa. **Langabezia-tasa bilakaera amaitutako ikasketa-mailaren arabera EAEn** (%; 4. hiruhilekoa)



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera Inkesta

Jarduera sektorearen arabera. 2022. urtearen amaierako egoera hurrengoa da: %72,9 Zerbitzuen sektoretik dator, %10,4 Industriatik, %6,3 Eraikuntzatik eta %2,7 Lehen Sektoretik.

Eranskina- Taulak

Erregistratutako langabezia EAEn

	2022ko abendua			2021ko abendua			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	110.798	62.953	47.845	114.845	63.614	51.231	-4.047	-3,52%
Adina								
16 - 24 urte	8.221	3.814	4.407	8.818	4.179	4.639	-597	-6,77%
25 - 34 urte	18.472	10.732	7.740	19.428	10.864	8.564	-956	-4,92%
35 - 44 urte	23.746	14.207	9.539	25.800	14.962	10.838	-2.054	-7,96%
45 - 54 urte	27.794	15.709	12.085	28.824	15.705	13.119	-1.030	-3,57%
55 - 64 urte	32.565	18.491	14.074	31.975	17.904	14.071	590	1,85%
Lurralde Historikoa								
Araba	19.000	11.115	7.885	19.414	10.924	8.490	-414	-2,13%
Gipuzkoa	29.437	16.867	12.570	30.553	17.253	13.300	-1.116	-3,65%
Bizkaia	62.361	34.971	27.390	64.878	35.437	29.441	-2.517	-3,88%
Lanbide-eskualdeak								
Bidasoa Behea	3.744	2.176	1.568	4.027	2.332	1.695	-283	-7,03%
Oarsoaldea	3.361	1.881	1.480	3.513	1.921	1.592	-152	-4,33%
Donostia-S.Seb.	6.984	3.883	3.101	7.367	4.087	3.280	-383	-5,20%
Donost.mende.	2.971	1.718	1.253	3.070	1.739	1.331	-99	-3,22%
Tolosaldea	1.869	1.095	774	1.895	1.101	794	-26	-1,37%
Urola Erdia	1.201	682	519	1.216	694	522	-15	-1,23%
Goiherri	1.671	954	717	1.560	888	672	111	7,12%
Debagoiena	2.417	1.376	1.041	2.470	1.340	1.130	-53	-2,15%
Debabarrena	2.640	1.580	1.060	2.733	1.601	1.132	-93	-3,40%
Urola Garaia	1.073	626	447	1.060	596	464	13	1,23%
Urola Kosta	1.506	896	610	1.642	954	688	-136	-8,28%
Vitoria-Gasteiz	14.493	8.477	6.016	14.980	8.483	6.497	-487	-3,25%
Aiaraldea	2.190	1.295	895	2.278	1.265	1.013	-88	-3,86%
Arabako Errioxa	597	354	243	695	381	314	-98	-14,10%
Arabako Lautada	682	394	288	711	400	311	-29	-4,08%
Gorbeialdea	285	171	114	316	165	151	-31	-9,81%
Arabako bailarak	416	230	186	400	224	176	16	4,00%
Arabako mendiak	89	45	44	102	49	53	-13	-12,75%
Gobela	4.378	2.450	1.928	4.627	2.477	2.150	-249	-5,38%
Txorierri	2.018	1.141	877	2.150	1.138	1.012	-132	-6,14%
Uribealdea	2.822	1.542	1.280	3.025	1.609	1.416	-203	-6,71%
Durangaldea	3.459	2.016	1.443	3.498	2.004	1.494	-39	-1,11%
Busturialdea	2.077	1.120	957	2.205	1.185	1.020	-128	-5,80%
Lea-Artibai	1.001	515	486	1.058	528	530	-57	-5,39%
Enkarterriak	1.870	1.095	775	1.926	1.096	830	-56	-2,91%
Arratia-Zornotza	1.439	810	629	1.565	844	721	-126	-8,05%
Nerbioi Erdia	1.281	704	577	1.300	711	589	-19	-1,46%
Bilbao	21.606	12.052	9.554	22.131	12.061	10.070	-525	-2,37%
Ezkerraldea	15.978	8.962	7.016	16.860	9.163	7.697	-882	-5,23%
Ibaizabal	4.362	2.521	1.841	4.447	2.569	1.878	-85	-1,91%
Iraupena								
Iraupen luzeko langabeak	54.390	33.049	21.341	58.405	35.127	23.278	-4.015	-6,87%
Iraupen laburreko langabeak	56.408	29.904	26.504	56.440	28.487	27.953	-32	-0,06%
Jarduera sektorea								
Lehen sektorea	2.179	655	1.524	2.632	752	1.880	-453	-17,21%
Eraikuntza	6.428	843	5.585	7.717	913	6.804	-1.289	-16,70%
Industria	11.738	3.940	7.798	13.708	4.614	9.094	-1.970	-14,37%
Zerbitzuak	77.420	48.684	28.736	76.568	47.912	28.656	852	1,11%
Aurrez enplegurik izan gabe	13.033	8.831	4.202	14.220	9.423	4.797	-1.187	-8,35%

	2022ko abendua			2021ko abendua			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	110.798	62.953	47.845	114.845	63.614	51.231	-4.047	-3,52%
Ekonomia jarduera								
01 Nekazaritza, abeltzaintza	1.910	614	1.296	2.269	699	1.570	-359	-15,82%
02 Basogintza eta basoen ustiaketa	169	26	143	214	35	179	-45	-21,03%
03 Arrantza eta akuikultura	100	15	85	149	18	131	-49	-32,89%
05 Antrazita, harrikatza, lignitoaren erauzketa	-	-	-	-	-	-	-	-
06 Petrolio gordinaren, gas naturalaren erauzketa	4	2	2	7	4	3	-3	-42,86%
07 Mineral metalikoen erauzketa	2	-	2	3	1	2	-1	-33,33%
08 Beste erauzketa-industria batzuk	29	13	16	28	7	21	1	3,57%
09 Erauzketa-industrietan laguntzeko jarduerak	4	2	2	7	2	5	-3	-42,86%
10 Elikadura-industria	1.539	879	660	1.681	981	700	-142	-8,45%
11 Edarien fabrikazioa	188	70	118	176	62	114	12	6,82%
12 Tabako-industria	25	18	7	23	18	5	2	8,70%
13 Ehungintza-industria	113	73	40	168	126	42	-55	-32,74%
14 Jantzigintza	160	143	17	167	146	21	-7	-4,19%
15 Larrugintza eta oinetakogintza	22	14	8	33	22	11	-11	-33,33%
16 Zuraren eta kortxoaren industria	281	43	238	291	52	239	-10	-3,44%
17 Papergintza	162	67	95	180	73	107	-18	-10,00%
18 Arte grafikoak eta euskarri grabatuak	340	163	177	413	195	218	-73	-17,68%
19 Kokeriak eta petrolioa fintzea	11	6	5	7	6	1	4	57,14%
20 Industria kimikoa	363	122	241	398	143	255	-35	-8,79%
21 Farmazia-produktuen fabrikazioa	45	27	18	65	31	34	-20	-30,77%
22 Kautxuzko produktuen fabrikazioa	601	234	367	805	306	499	-204	-25,34%
23 Mineral ez-metalikoen fabrikazioa	259	69	190	297	85	212	-38	-12,79%
24 Metalurgia; burdina, altzairua, ferroaleazioak	1.065	204	861	1.302	252	1.050	-237	-18,20%
25 Produktu metalikoak, makinak izan ezik	2.489	578	1.911	2.790	652	2.138	-301	-10,79%
26 Produktu informatiko, elektroniko,optikoak	174	92	82	210	104	106	-36	-17,14%
27 Material eta tresneria elektrikoen fabrikazioa	588	270	318	709	310	399	-121	-17,07%
28 Sailkatu gabeko makinerien fabrikazioa	726	183	543	902	242	660	-176	-19,51%
29 Ibilgailu motordunak eta atoiak	617	181	436	797	214	583	-180	-22,58%
30 Garraiorako bestelako materiala fabrikatzea	319	71	248	431	76	355	-112	-25,99%
31 Altzarigintza	225	75	150	266	87	179	-41	-15,41%
32 Beste manufaktura-industria batzuk	229	116	113	311	156	155	-82	-26,37%
33 Makinak eta ekipoak konpontzea, instalatzea	491	110	381	554	119	435	-63	-11,37%
35 Energia elektrikoaren hornidura	35	9	26	51	16	35	-16	-31,37%
36 Uraren bilketa, arazketa eta banaketa	57	18	39	66	28	38	-9	-13,64%
37 Hondakin-uren bilketa eta tratamendua	20	5	15	11	3	8	9	81,82%
38 Hondakinak biltzea, tratatzea, deuseztatzea	540	79	461	550	94	456	-10	-1,82%
39 Hondakinen deskontaminazioa	15	4	11	9	1	8	6	66,67%
41 Eraikinen eraikuntza	2.110	270	1.840	2.651	294	2.357	-541	-20,41%
42 Ingeniaritza zibila	251	30	221	310	30	280	-59	-19,03%
43 Eraikuntza espezializatuko jarduerak	4.067	543	3.524	4.756	589	4.167	-689	-14,49%
45 Ibilgailu motordunen salmenta, konponketa	971	276	695	1.078	306	772	-107	-9,93%
46 Handizkako merkataritza	3.459	1.496	1.963	3.751	1.620	2.131	-292	-7,78%
47 Txikizkako merkataritza	10.899	8.281	2.618	11.515	8.822	2.693	-616	-5,35%
49 Lurreko eta tutueria bidezko garraioa	1.504	329	1.175	1.491	318	1.173	13	0,87%
50 Itsas garraioa	80	31	49	116	44	72	-36	-31,03%
51 Aireko garraioa	38	21	17	65	33	32	-27	-41,54%
52 Biltegiratzea, garraioaren jarduera erantsiak	635	211	424	700	243	457	-65	-9,29%
53 Posta-jarduerak	726	291	435	755	290	465	-29	-3,84%
55 Ostatu-zerbitzuak	1.121	806	315	1.200	840	360	-79	-6,58%
56 Janari- eta edari-zerbitzuak	9.838	6.554	3.284	10.088	6.571	3.517	-250	-2,48%
58 Argitalpena	210	113	97	243	146	97	-33	-13,58%
59 Zinematografiako eta bideoko jarduerak	556	270	286	555	279	276	1	0,18%
60 Irrati-telebistako programazioa, emanaldia	36	16	20	55	27	28	-19	-34,55%
61 Telekomunikazioak	260	122	138	299	132	167	-39	-13,04%
62 Programazioa, aholkularitza, informatika	681	325	356	751	377	374	-70	-9,32%
63 Informazio-zerbitzuak	133	55	78	134	54	80	-1	-0,75%
64 Finantza-zerbitzuak	523	265	258	510	271	239	13	2,55%
65 Aseguruak, berraseguruak, pentsio-funtsak	138	85	53	169	101	68	-31	-18,34%
66 Finantza-zerbitzuen jarduera osagarriak	194	136	58	211	157	54	-17	-8,06%
68 Higiezinen jarduerak	386	276	110	395	272	123	-9	-2,28%
69 Zuzenbidea eta kontabilitatea	676	514	162	655	470	185	21	3,21%

	2022ko abendua			2021ko abendua			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	110.798	62.953	47.845	114.845	63.614	51.231	-4.047	-3,52%
Ekonomia jarduera								
70 Egoitza nagusiak; enpresa-kudeaketa	357	230	127	356	226	130	1	0,28%
71 Arkitektura, ingeniaritza; azterketa teknikoak	829	368	461	891	380	511	-62	-6,96%
72 Ikerketa eta garapena	360	215	145	389	223	166	-29	-7,46%
73 Publizitatea eta merkatu-azterlanak	931	654	277	1.094	770	324	-163	-14,90%
74 Beste jarduera profesional zientifiko, tekniko	1.282	877	405	1.744	1.184	560	-462	-26,49%
75 Albaitaritza-jarduerak	37	27	10	40	30	10	-3	-7,50%
77 Alokairu-jarduerak	373	152	221	575	251	324	-202	-35,13%
78 Enpleguari lotutako jarduerak	8.130	3.228	4.902	7.271	3.013	4.258	859	11,81%
79 Bidaia-agentzien jarduerak	200	149	51	244	186	58	-44	-18,03%
80 Segurtasun- eta ikerketa-jarduerak	527	153	374	611	158	453	-84	-13,75%
81 Eraikinetako eta lorezaintzako zerbitzuak	6.495	4.571	1.924	5.754	3.932	1.822	741	12,88%
82 Bulegoko jarduera administratiboak	1.812	1.051	761	1.845	1.047	798	-33	-1,79%
84 Herri-administrazioa Gizarte Segurantza	3.895	1.981	1.914	3.089	1.560	1.529	806	26,09%
85 Hezkuntza	3.376	2.421	955	2.972	2.117	855	404	13,59%
86 Osasun-jarduerak	1.461	1.241	220	1.425	1.226	199	36	2,53%
87 Laguntza ematea egoitzetan	2.586	2.204	382	2.132	1.827	305	454	21,29%
88 Gizarte-zerbitzuen jarduerak, ostatu gabe	2.438	1.723	715	2.111	1.496	615	327	15,49%
90 Sortze- eta arte-jarduerak	545	216	329	527	225	302	18	3,42%
91 Liburutegiak, artxibategiak eta museoak	119	80	39	121	82	39	-2	-1,65%
92 Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak	198	116	82	182	107	75	16	8,79%
93 Kirol- eta jolas-jarduerak	1.006	494	512	1.175	595	580	-169	-14,38%
94 Elkarteen jarduerak	1.291	771	520	1.165	706	459	126	10,82%
95 Ordenagailuen konponketa	127	60	67	158	79	79	-31	-19,62%
96 Beste zerbitzu pertsonal batzuk	1.798	1.412	386	2.006	1.612	394	-208	-10,37%
97 Langileak enplegatzen dituzten etxeak	4.148	3.793	355	3.910	3.480	430	238	6,09%
98 Ondasun,zerbitzuak produzitzen diren etxeak	12	11	1	16	11	5	-4	-25,00%
99 Lurraldez kanpoko erakundeen jarduerak	23	13	10	29	16	13	-6	-20,69%
Ikasketa maila								
Derrigorrezko hezkuntza eta gutxiago	66.585	36.224	30.361	70.039	37.040	32.999	-3.454	-4,93%
Batxilergokoa	9.708	5.665	4.043	10.098	5.773	4.325	-390	-3,86%
Lanbide Heziketakoa	20.690	12.030	8.660	20.862	11.864	8.998	-172	-0,82%
Unibertsitateakoa	13.815	9.034	4.781	13.846	8.937	4.909	-31	-0,22%
Nacionalidad								
Europako Erkidegoa	3.262	1.854	1.408	3.427	1.867	1.560	-165	-4,81%
Erkidez kanpoko Europa	640	469	171	356	229	127	284	79,78%
Txina	43	15	28	61	27	34	-18	-29,51%
Japonia	10	9	1	5	3	2	5	100,00%
Asia gainerakoa	1.149	663	486	1.023	573	450	126	12,32%
Saharaz hegoaldeko Afrika	2.420	1.161	1.259	2.654	1.165	1.489	-234	-8,82%
Afrika iparraldea	6.330	3.594	2.736	6.446	3.595	2.851	-116	-1,80%
Ipar Amerika	26	13	13	32	17	15	-6	-18,75%
Latinoamerika	4.344	2.973	1.371	4.110	2.747	1.363	234	5,69%
Ozeania	4	1	3	3	1	2	1	33,33%
Besterik	10	5	5	7	5	2	3	42,86%
Aberrigabea	444	298	146	437	263	174	7	1,60%
Atzerritarrak guztira	18.682	11.055	7.627	18.561	10.492	8.069	121	0,65%
Espainia	92.116	51.898	40.218	96.284	53.122	43.162	-4.168	-4,33%
Prestazioak								
Subsidioa	14.833	7.965	6.868	15.303	8.057	7.246	-470	-3,07%
GEA	1.737	998	739	1.917	972	945	-180	-9,39%
Prestazioa	20.423	10.142	10.281	20.663	9.792	10.871	-240	-1,16%
Prestazioak guztira	36.993	19.105	17.888	37.883	18.821	19.062	-890	-2,35%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Gizarte Segurantzako Afiliazioa[2] EAEn

	2022ko abendua			2021ko abendua			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	994.077	478.797	515.278	980.022	471.700	508.322	14.055	1,43%
Lurralde historikoa								
Araba	163.436	75.555	87.880	160.628	74.367	86.261	2.809	1,75%
Gipuzkoa	330.685	157.953	172.731	327.586	156.294	171.292	3.099	0,95%
Bizkaia	499.956	245.289	254.667	491.808	241.039	250.769	8.148	1,66%
Ekonomia jarduera								
A. Nekazaritza, abeltzaintza, basoginta, arrantza	11.250			11.355			-105	-0,93%
B. Ateratze-industriak	535			553			-18	-3,25%
C. Manufaktura industria	171.980			169.893			2.088	1,23%
D. Energia hornidura	1.600			1.589			11	0,70%
E. Ur hornidura eta Saneamendu	6.471			6.536			-64	-0,98%
F. Eraikuntza	58.183			57.154			1.029	1,80%
G. Merkataritza; ibilgailuen konponketa	135.965			136.897			-932	-0,68%
H. Garraioa eta biltegiratzea	44.633			43.175			1.459	3,38%
I. Ostalaritza	67.431			65.650			1.781	2,71%
J. Informazioa eta komunikazioa	25.676			24.500			1.177	4,80%
K. Finantza jarduerak eta aseguruak	16.815			16.941			-127	-0,75%
L. Higiezinen jarduerak	4.290			4.194			96	2,29%
M. Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	61.044			59.145			1.899	3,21%
N. Administrazio-jarduerak, zerbitzu lagungarriak	68.588			68.409			180	0,26%
O. Herri administrazioa eta defentsa	50.992			49.517			1.474	2,98%
P. Hezkuntza	80.338			79.058			1.280	1,62%
Q. Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	113.007			111.418			1.589	1,43%
R. Jolas eta kultur jarduerak	18.892			17.846			1.046	5,86%
S. Bestelako zerbitzuak	27.273			27.128			144	0,53%
T. Familiaetxeen jarduerak	29.035			28.987			48	0,17%
U. Lurraldez kanpoko erakundeak	77			78			-1	-0,43%
Nazionalitatea								
Atzerrikoa	83.223	37.743	45.480	74.691	33.829	40.862	8.532	11,42%
Araba	14.402	5.874	8.528	13.009	5.309	7.700	1.393	10,71%
Gipuzkoa	28.982	13.282	15.700	26.085	11.920	14.165	2.897	11,11%
Bizkaia	39.838	18.586	21.252	35.598	16.600	18.998	4.241	11,91%
Espainarra	910.854	441.054	469.798	905.331	437.871	467.460	5.523	0,61%

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa

[2] Erabilitako erreferentzia laneko altan dauden afiliatuen hileko batez bestekoa da

Kontratatutako pertsonak EAEn

	2022			2021			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	304.106	145.768	158.338	284.606	135.846	148.760	19.500	6,85%
Adina								
<20 urte	15.588	7.122	8.466	11.831	5.360	6.761	3.757	31,76%
20 - 24 urte	52.846	25.029	27.817	47.306	22.510	25.144	5.540	11,71%
25 - 29 urte	46.748	22.209	24.539	44.203	21.028	22.934	2.545	5,76%
30 - 44 urte	102.941	48.776	54.165	100.126	47.067	52.919	2.815	2,81%
45 urte eta gehiago	85.983	42.632	43.351	81.140	39.881	41.002	4.843	5,97%
Nazionalitatea								
Espainiarra	245.971	120.099	125.872	235.183	114.810	120.373	10.788	4,59%
Atzerritarra	58.135	25.669	32.466	49.423	21.036	28.387	8.712	17,63%
<>	271	83	188	251	87	164	20	7,97%
Aberrigabea	340	60	280	272	49	222	68	25,00%
Europako Erkidegoa	5.045	1.901	3.144	4.851	1.712	3.139	194	4,00%
Erkidez kanpoko Europa	5.804	2.710	3.094	5.691	2.622	3.069	113	1,99%
Txina	853	331	522	869	332	537	-16	-1,84%
Japonia	30	15	15	21	12	9	9	42,86%
Asiako beste herrialdekoa	3.646	1.186	2.460	2.998	754	2.244	648	21,61%
Saharaz hegoaldeko Afrika	6.246	1.404	4.842	5.444	1.170	4.274	802	14,73%
Afrikako iparraldea	8.945	1.672	7.273	7.334	1.339	5.996	1.611	21,97%
Ipar Amerika	137	71	66	139	72	67	-2	-1,44%
Latinoamerika	26.787	16.225	10.562	21.529	12.878	8.651	5.258	24,42%
Ozeania	31	11	20	24	9	15	7	29,17%
Errotazio-tasa								
Sinatutako kontratuak / Kontratutako pertsonak	2,7	2,8	2,6	3,0	3,1	2,9	-0,3	-10,58%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

Sinatu diren kontratuak

	2022			2021			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	815.719	409.328	406.391	861.726	423.938	437.788	-46.007	-5,34%
Lurralde Historikoa								
Araba	163.572	72.616	90.956	169.555	72.637	96.918	-5.983	-3,53%
Gipuzkoa	401.684	205.792	195.892	433.911	215.858	218.053	-32.227	-7,43%
Bizkaia	250.463	130.920	119.543	258.260	135.443	122.817	-7.797	-3,02%
Ekonomia jarduera								
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	14.865	1.565	13.300	15.484	1.605	13.879	-619	-4,00%
Ateratze-industriak	154	33	121	129	19	110	25	19,38%
Manufaktura industria	114.341	28.118	86.223	131.117	32.095	99.022	-16.776	-12,79%
Energia hornidura	215	92	123	153	52	101	62	40,52%
Ur hornidura eta Saneamendu	5.667	614	5.053	5.858	595	5.263	-191	-3,26%
Eraikuntza	27.546	1.975	25.571	30.286	1.962	28.324	-2.740	-9,05%
Merkataritza; ibilgailuen konponketa	96.727	55.268	41.459	105.570	60.378	45.192	-8.843	-8,38%
Garraioa eta biltegiratzea	65.400	11.840	53.560	81.833	13.907	67.926	-16.433	-20,08%
Ostalaritza	109.617	66.860	42.757	93.324	58.569	34.755	16.293	17,46%
Komunikazioa	24.761	9.992	14.769	29.339	11.288	18.051	-4.578	-15,60%
Finantza jarduerak eta aseguruak	3.308	2.006	1.302	3.298	2.078	1.220	10	0,30%
Higiezinen jarduerak	1.141	764	377	1.124	757	367	17	1,51%
Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	26.932	14.114	12.818	31.178	16.098	15.080	-4.246	-13,62%
Administrazio-jarduerak, zerbitzu lagungarriak	86.257	49.116	37.141	93.931	56.144	37.787	-7.674	-8,17%
Herri administrazioa eta defentsa	12.017	6.691	5.326	12.461	7.030	5.431	-444	-3,56%
Hezkuntza	48.791	34.249	14.542	47.400	32.666	14.734	1.391	2,93%
Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	102.352	81.288	21.064	112.149	88.318	23.831	-9.797	-8,74%
Jolas eta kultur jarduerak	39.695	15.722	23.973	32.404	12.898	19.506	7.291	22,50%
Bestelako zerbitzuak	15.974	10.318	5.656	16.237	10.302	5.935	-263	-1,62%
Familiaetxeen jarduerak	19.923	18.679	1.244	18.370	17.127	1.243	1.553	8,45%
Lurraldez kanpoko erakundeak	36	24	12	81	50	31	-45	-55,56%
Okupazio-taldeak								
<>	16	-	16	11	1	10	5	45,45%
Zuzendariak	1.887	737	1.150	1.694	621	1.073	193	11,39%
Zientzia teknikariak	100.966	62.223	38.743	101.855	62.289	39.566	-889	-0,87%
Laguntza teknikariak	80.352	36.332	44.020	80.088	36.257	43.831	264	0,33%
Administrariak	47.186	29.679	17.507	54.272	31.976	22.296	-7.086	-13,06%
Kualifikatuak, Zerbitzuetan	239.288	159.768	79.520	237.185	162.193	74.992	2.103	0,89%
Kualifikatuak, Lehen sektorea	3.485	260	3.225	3.765	285	3.480	-280	-7,44%
Kualifikatuak, Industria	52.228	5.449	46.779	57.669	5.606	52.063	-5.441	-9,43%
Operadoreak	56.597	8.215	48.382	61.273	9.201	52.072	-4.676	-7,63%
Kualifikatu gabeak	233.714	106.665	127.049	263.914	115.509	148.405	-30.200	-11,44%
Kontratu mota								
Mugagabea	199.995	97.301	102.694	80.545	39.558	40.987	119.450	148,30%
Aldi baterakoa	615.724	312.027	303.697	781.181	384.380	396.801	-165.457	-21,18%
Lanaldi-mota								
Osoa	517.215	212.730	304.485	522.587	202.171	320.416	-5.372	-1,03%
Partziala	298.504	196.598	101.906	339.139	221.767	117.372	-40.635	-11,98%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa

Kontratu mugagabeak	2022			2021			Urteko aldakuntza	
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	199.995	97.301	102.694	80.545	39.558	40.987	119.450	148,30%
adina								
<20 urte	8.881	4.266	4.615	1.548	657	891	7.333	473,71%
20 - 24 urte	32.842	16.032	16.810	8.818	4.008	4.810	24.024	272,44%
25 - 29 urte	32.287	15.572	16.715	12.888	6.153	6.735	19.399	150,52%
30 - 44 urte	71.044	33.581	37.463	32.039	15.478	16.561	39.005	121,74%
45 urte eta gehiago	54.941	27.850	27.091	25.252	13.262	11.990	29.689	117,57%
Actividad económica								
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	4.447	424	4.023	839	64	775	3.608	430,04%
Ateratze-industriak	56	9	47	29	3	26	27	93,10%
Manufaktura industria	20.288	4.602	15.686	11.019	2.644	8.375	9.269	84,12%
Energia hornidura	141	48	93	65	24	41	76	116,92%
Ur hornidura eta Saneamendu	1.107	128	979	519	76	443	588	113,29%
Eraikuntza	15.472	1.092	14.380	5.307	584	4.723	10.165	191,54%
Merkataritza; ibilgailuen konponketa	26.377	14.370	12.007	12.028	6.050	5.978	14.349	119,30%
Garraioa eta biltegiratzea	9.624	1.714	7.910	4.272	823	3.449	5.352	125,28%
Ostalaritza	35.939	19.111	16.828	8.999	4.466	4.533	26.940	299,37%
Komunikazioa	5.474	1.941	3.533	2.969	1.027	1.942	2.505	84,37%
Finantza jarduerak eta aseguruak	954	554	400	689	399	290	265	38,46%
Higiezinen jarduerak	579	364	215	328	210	118	251	76,52%
Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak	10.743	5.439	5.304	5.239	2.688	2.551	5.504	105,06%
Administrazio-jarduerak, zerbitzu lagungarriak	16.558	8.337	8.221	6.143	3.307	2.836	10.415	169,54%
Herri administrazioa eta defentsa	209	117	92	169	91	78	40	23,67%
Hezkuntza	9.565	6.353	3.212	3.741	2.504	1.237	5.824	155,68%
Osasun eta gizarte zerbitzuen jarduerak	10.680	8.364	2.316	5.651	4.379	1.272	5.029	88,99%
Jolas eta kultur jarduerak	8.152	3.726	4.426	2.075	883	1.192	6.077	292,87%
Bestelako zerbitzuak	6.242	4.167	2.075	2.025	1.383	642	4.217	208,25%
Familiaetxeen jarduerak	17.375	16.430	945	8.383	7.921	462	8.992	107,26%
Lurraldez kanpoko erakundeak	13	11	2	56	32	24	-43	-76,79%
Grupo de ocupación								
<>	3	-	3	1	-	1	2	200,00%
Zuzendariak	1.482	529	953	1.132	387	745	350	30,92%
Zientzia teknikariak	19.590	10.784	8.806	10.562	5.564	4.998	9.028	85,48%
Laguntza teknikariak	22.578	9.748	12.830	9.484	3.644	5.840	13.094	138,06%
Administrariak	15.554	10.336	5.218	8.050	5.538	2.512	7.504	93,22%
Kualifikatuak, Zerbitzuetan	56.232	34.141	22.091	17.067	10.465	6.602	39.165	229,48%
Kualifikatuak, Lehen sektorea	950	49	901	486	15	471	464	95,47%
Kualifikatuak, Industria	18.799	1.233	17.566	7.655	474	7.181	11.144	145,58%
Operadoreak	12.516	1.116	11.400	5.833	472	5.361	6.683	114,57%
Kualifikatu gabeak	52.291	29.365	22.926	20.275	12.999	7.276	32.016	157,91%
Nazionalitatea								
Espainiarra	151.296	73.608	77.688	64.572	31.234	33.338	86.724	134,31%
Atzerrikoa	48.699	23.693	25.006	15.973	8.324	7.649	32.726	204,88%

Iturria: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa

Aldagai nagusiak-Biztanleria Jardueraren Arabera-Eustat[3]

	Landunak		Langabeak	
	Kopurua	Tasa (%)	Kopurua	Tasa (%)
Guztira	962.900	51,6	89.800	8,5
Lurralde Historikoa				
Araba	143.800	51,6	14.800	9,3
Gipuzkoa	322.100	52,8	23.900	6,9
Bizkaia	497.000	50,7	51.100	9,3
Sexua				
Emakumea	460.300	47,4	46.800	9,2
Gizona	502.600	56,1	43.100	7,9
Adina				
16-24 urte	45.700	24,4	11.100	19,6
25-44 urte	398.800	80,7	41.000	9,3
45 eta gehiago	518.400	43,7	37.700	6,8

Iturria: Eustat, BJA
Elaborazioa: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

	Landunak		Langabeak	
	Urteko aldakuntza		Urteko aldakuntza	
	Kopurua	Ehunekoa	Kopurua	Ehunekoa
Guztira	15.100	1,59%	-14.400	-13,82%
Lurralde Historikoa				
Araba	-3.000	-2,04%	-1.000	-6,33%
Gipuzkoa	6.800	2,16%	-2.600	-9,81%
Bizkaia	11.300	2,33%	-10.800	-17,45%
Sexua				
Emakumea	6.900	1,52%	-5.400	-10,34%
Gizona	8.300	1,68%	-8.900	-17,12%
Adina				
16-24 urte	2.400	5,54%	-400	-3,48%
25-44 urte	5.700	1,45%	-9.600	-18,97%
45 eta gehiago	7.000	1,37%	-4.400	-10,45%
Sektore ekonomikoa				
Lehen sektorea	1.400	17,72%	900	60,00%
Industria	-5.600	-2,83%	-8.100	-46,55%
Eraikuntza	3.600	6,49%	-1.900	-25,00%
Zerbitzuak	15.700	2,29%	-3.600	-5,21%
Sailakatu gabeak	0	0,00%	-1.600	-18,82%

Iturria: Eustat, BJA
Elaborazioa: Analisi, Estatistika eta Azterlan Zerbitzua. Lanbideren Kabinete Teknikoa.

[3] Emandako datuen denbora-erreferentzia IV. hiruhilekoa da.